


# FUNTSEZKO JARDUERAK



Aitor Aiestaran  
Ander Barkin  
Maialen Etxebeste  
Miren Garmendia

## **JARDUERAK**

Orain arte aipatu dugun bezala arlo oro bereziki garrantzitsua dela gure enpresa ideia osatzeko, sustatzeko eta alden den neurrian hobetzeko, jarduerak ere ez dira alde batera uzteko modukoak. Izan ere, edozein negozio eredu aurrera eramateko, beharrezkoak dira zenbait jarduera burutzea; besteak beste, balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko.

Funtsezko jarduerak horrela sailkatuko genituzke: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Produkzioari dagokionez, honako hauek bereizten dira: Produktuaren diseinua, produktua kantitate jakin batzuetan egitea, produktuaren kalitatea eta produktu beraren entrega, azkenik.

Arazoak konpontzeko jarduerari erreparatuz gero, bezeroen arazoak konpontzeaz arduratzen diren enpresak nabarmentzen direla esan beharra dago. Besteak beste, zerbitzuak, ospitaleak eta aholkulariak. Hala ere, enpresa hauek, ezagutzaren gestioa eta etengabeko prestakuntza behar dute.

Plataformako eta sareko jarduerari dagokienez, plataforma teknologiko eta internet bidez enpresetan dira nagusi. Eredu hauetan, jarduera hauek bereizi eta azpimarratu behar dira: plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataformaren promozionatzea.

Hau guztiaz gainera, aipatu beharra dago enpresa barruan egin daitezkeen jarduerak identifikatzea eta egiteak duen garrantzia. Gainera, bestelako enpresak kontratatu daitezke jarduera jakin batzuk egiteko, baina tentuz ibili beharra dago, enpresari kalterik egin ez diezaioten.

Bestalde, badira ere kanpoko enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak ere. Hala ere, beti kontuan izan behar dugu zeregin hauek ez diotela balio erantsirik ematen dute enpresari. Honen adibide argiak dira catering-a, garbiketa zerbitzuak...

Hau dena kontuan izanda, gure enpresa ideia edo proiektua bideratzeko, produkzioa eta plataforma eta sareko jarduerak emango dira. Izan ere, produkzioaren bitartez produktuaren diseinua, produktuaren kalitatea, produktu beraren entrega... zehaztuko ditugu teknologia eta marrazketa teknikoan aditua den pertsona baten bitartez. Hauek, beharrezkoak izango dira gure proiektuaren zenbait arlo finkatzeko. Bestetik, plataformak eta sareko jarduerak ere beharrezkoak izango ditugu gure produktua nola bideratu zehazteko garaian. Hau, plataforma teknologikoen bidez adibidez, gure ideia bideratzeko bidea izan daiteke, besteak beste.